



GAZTEIZKO UDALAREN HIRI BARATZEEN ERABILERA ARAUTZEKO ORDENANTZAREN PROIEKTUA

I.- ZIOEN ADIERAZPENA

Hiri ertaina da Gasteiz, eta, bertan, edozein herritarrek nekazaritza- eta natur ingurune aski ongi zainduan murgiltzeko egin beharreko bidea ez da kilometro gutxi batzuetatik igarotzen. Hala eta guztiz ere, herritar gehienak ingurune horri bizkar emanda bizi dira.

Gainera, 64 herri daude udalerrian, eta nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak burutzen dira bertan. Horrenbestez, komenigarria da harremanak sustatzea, hiritarrek herriak eta bertako bizimodua ezagutzea, baita bertako ekoizpenari eta herrietako kultura eta ezagutzei dagokien balioa aitortzea ere. Zentzu horretan, Gasteizko udalbatzak aho batez onartu zuen berriki mozio bat, nekazaritzako elikagaien udal plana egiteko, eta bertako produktuen eta produktu ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa bultzatzeko, baita merkaturatze zirkuitu laburrak ere.

Bestalde, egia da, era berean, Gasteizko egungo herritar asko nekazaritza-ingurunetik etorriak direla, gaztetan hura utzi behar izan zutelarik, lan eta aukera ezak hartara bultzaturik. Halako nostalgia sentipen bat ernatu ohi da pertsona horien baitan sarritan, iraganeko bizimoduaren edo, behintzat, alderdirik atsegingarrienen oroitzapenak eraginda. Ohikoa da, esaterako, lursail txiki bat edukitzeko nahia, baratzea egiteko bertan, edo loreak landatzeko, produktuak ontziratze edo, besterik gabe, aire zabalean ibiltzeko, landa giroan.

Jarduera horiek, zalantzarik gabe, aisialdi osasungarriaren eredu dira, eta denbora modu eraikitzailean baliatzeko aukera ematen dute. Nolanahi ere, horietako zenbaitek, bereziki baratzezaintzari lotuek, ingurumenaren eta paisaiaren alorreko arazoak ekar ditzakete berekin, modu egokian burutzen ez badira. Izan ere, baratzezaintza jarduerak, Gasteiz inguruan, ibai ertzei lotua egon izan da, eta modu desordenatu era erasokorrean gauzatzen zen, izaera guztiz irregularrarekin, espazioen okupazioari eta titulartasunari dagokienez.

Egoera horretan, alde batetik herritar gehienek —batez ere haur eta gazteek— nekazaritza eta basogintzako prozesuen berririk ez zutelarik, eta, bestetik, beste herritar multzo handi baten premia eta nahiak agerian geratzen ari zirelarik, Ingurugiro Gaietarako Ikastegiak ekimen bat jarri zuen abian 90eko hamarkadan, zein izan baitzen nekazaritza ekologikorako espazio bat sortzea, non aisialdia, prestakuntza eta ingurumen hezkuntza batu ahal izango baitziren, marko arautu batean —lursailen okupazioari eta horiek lantzeko baliatuko ziren teknikei zegokienez—, aldi berean hiriaren ingurumena hobetuz, galtzeko zorian zegoen "baratzeen kultura" berreskuratuz eta nekazaritza-eremuetako kulturarekin lotutako hainbat alderdi, erabilera eta tradizio gordez.

Hartara, Olarizuko baratzeak sortu ziren 1998an, eta Abetxukuko Urarteko baratzeak 2007an, eta hainbat jarduerak garatu dira bertan geroztik, aisialdiko baratzezaintza barne. Jarduera horiek, zeinek prestakuntza ikastaro bat eta udal lursail bat aldi batez erabiltzeko baimena hartzen duten beren baitan, arau batzuei jarraiki garatu dira orain arte, eta, hain zuzen ere, hori finkatu eta erregularizatu nahi da orain proposatzen den ordenantzarekin. Horrez gain, hiri baratzeen, eskola-baratzeen eta baratze sozialen inguruko bestelako ekimenik ere garatu da udalerrian.

Espazio horien eta gerora sortzen diren antzeko beste batzuen erabilerari aplikatuko zaion erregimena finkatu nahi du udalak ordenantza honen bitartez, udalaren titularitateko baratze eta fruitu-arbola sailak erabili eta baliatu ahal izateko egin beharreko izapideak eta esleipen-erregimena arautuz, baita onuradunak hautatzeko prozedura, horien eskubide eta



betebeharrak, izan litezkeen arau-haustek eta jokabide oker edo arduragabeek berekin ekar litzakeen zigorrak ere.

Horrela, euskarri juridikoa emango zaie espazio horiek erabili eta baliatzearen inguruko kontuei, aintzat harturik zer-nolako udal ondasunak jartzen diren herritarren eskura horiek erabiltzeko baimenen bitartez.



AURKIBIDEA

I. titulua.- Arau orokorrak

Ordenantzaren xedea

Aplikazio-eremua.

Udalaren hiri baratzeeen helburuak.

Printzipio orokorrak.

Erregimen juridikoa.

Tasa.

II. titulua.- Baratzek esleitzeko prozedura.

Erabiltzeko baimenak.

Onuradun izateko betekizunak.

Lursailak erabiltzeko baimena eskuratzeko debekuak.

Baimena eskuratzeko prozedura.

Baimenen iraunaldia.

Baimenen iraungipena.

III. titulua.- Erabilera eta gozamen baldintzak.

Baimenen izaera pertsonala.

Erabilera arauak.

Debekuak.

Ordutegiak.

Hondakinen kudeaketa.

Erabiltzaile izaera galtzea.



IV. titulua.- Erantzukizun-erregimena.

Erantzukizun-erregimena.

Kalteak eta galerak ordainketa.

V. titulua.- Udalaren hiri baratzeen antolaketa.

Baratzeen kudeaketari atxikitako organoak eta langileak.

Jarraipen batzorde teknikoa.

Teknikariak.

Erabiltzaileekiko komunikazioak

VI. titulua.- Diziiplina-erregimena.

Ikuskapena eta kontrola.

Legezketasuna babestea.

Arau-haustek eta zigorrak.

Arau-haustek.

Zigorrak

Zigortzeko eskumena.

Prozedura zigortzailea.

Kautelazko neurriak.

Lehengoan uzteko eta konpontzeko obligazioa.

Bateratasuna auzibide penalarekin.

XEDAPEN GEHIGARRIA



AZKEN XEDAPENA

I. titulua.- Arau orokorrak

Artículo 1. Ordenantzaren xedea

Hauxe da ordenantza honen xedea:

- 1.- Udalaren hiri baratzeen funtzionamendu-arauak ezartzea, horiek erabili eta baliatzeko baldintzak arautuz, baita onuradun izango diren pertsona eta erakundeak hautatzeko prozedura ere.
- 2.- Aldi berean, diziplina erregimenaren arauak ematen dira, eta arau-haustekak eta horien ondorioz baratzeak erabiltzen dituzten pertsona eta erakundeei jarri ahal izango zaizkien zigorrak.

Artículo 2. Aplikazio-eremua

Udalaren hiri baratzeak kokatzen diren udal lur edo lursail orori aplikatuko zaie ordenantza hau —salbu eta berariazko beste erregimen baten menpe badaude—, baita horien erabilera edo gozamenaren onuradun egokitzen diren nortasun juridikoko elkarte eta erakundeei ere.

Beren jatorriagatik, ezaugarriengatik edo kudeaketa-sistemagatik araudi honetatik kanpo utzi beharreko udalaren hiri baratzeei dagozkien funtzionamendu-arauak aplikagarri diren araudiak aintzat harturik finkatuko dira, erabili eta baliatzeko arauak ezarriz, baita onuradun izango diren pertsona eta erakundeak hautatzeko prozedura ere.

Artículo 3. Udalaren hiri baratzeen helburuak.

Helburu hauek dituzte udalaren hiri baratzeek:

1. Hiri espazioak erabilera publikorako berreskuratzea, udalerriko paisaiara aniztasuna ekarriz.
2. Pertsonen aisialdirako eta beren jarduerarako espazioa bat eskaintzea.
3. Herritarren parte-hartzea sustatzea.
4. Bioaniztasun espazioak sortzea.
5. Ingurumenari begirunea dioten laborantza-jokabideak sustatzea: hondakinak kudeatzea, ura aurrezteak, nekazaritza ekologikoa, tradiziozko nekazaritzako erabilera eta ohiturak berreskuratzea eta abar.
6. Baratzeen izaera hezitzailea eta ludikoa sustatzea.
7. Inguru naturalaren eta giza jardueren arteko harremanak ezarri eta baloratzea.
8. Elikadura osasungarria eta elikadura-ohitura osasungarriago eta iraunkorragoak sustatzea.



9. Ingurumenaren ezagutza hobetu eta harekiko begirunea bultzatzea.
10. Belaunaldien eta kulturen arteko harremanak eta trukea sustatzea.
11. Gizarte ehunaren jarduera sustatzea, irabazi-asmorik gabeko elkarteei erabiltzeko baimena emanaz.
12. Auzotarrak elkartzeko eta sozializatzeko espazioak, erantzunkidetasuna eta ekimen soziala eta auzotarrena bultzatzea, bereziki auzoetan sustatzen diren baratzeetan.
13. Bertako produktuen eta produktu ekologikoen ekoizpena eta kontsumoa bultzatzea, eta nekazaritzako elikagaien udal estrategian aurrera egitea.

Artículo 4. Printzipio orokorrak.

Printzipio orokor hauek arautuko dituzte udalaren hiri baratzeak:

- 1.- Onik zaindu eta mantentzearen printzipioa: esan nahi baita erabiltzaile diren pertsona eta erakundeek oro beren gain hartu beharko dutela erabiltzeko uzten zaizkien instalazioak onik zaindu eta mantentzearen ardura, eta behar den arreta jarriko beharko dutela horretan.
- 2.- Elkarrekiko errespetuaren printzipioa: erabiltzaileek ekidin egin beharko dute gainerako lursailen erabiltzaileei enbarazu edo kalterik egitea.
- 3.- Ez merkaturatzearen printzipioa: debekatuta egongo da baratzeetan lortzen diren produktuak merkaturatzea; norberak edo familiak kontsumitzeko izango dira.
- 4.- Ingurumen prebentzioaren printzipioa: ezingo da erabili Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) baimendu gabeko ongarrri edo produktu fitosanitariorik.
- 5.- Integrazioaren, sozializazioaren eta gizarte kohesioaren printzipioa.
Hiri baratzeek balio sozial garrantzitsua dute bertan parte hartzen dutenentzat, denbora betetzeko aukera ematen baitiete, harreman berriak egitea ahalbidetzen eta, osasunerako on den jarduera fisikoaren bitartez, bizi-kalitatea hobetzen laguntzen. Orobat du balio handia hiriarentzat, ingurumenaren ikuspuntutik, berdegune publiko berriak bihurtzen baitira, baratzea protagonista, eta lurrarekiko kontaktua ahalbidetzen baitute.
- 6.- Hiriko aktibismo sozialaren printzipioa.
Eremu publikoetan sustatzen direlarik, elkarte-mugimendua, kultura eta parte-hartze publikoa ere bultzatzen dira.
- 7.- Kontsumo arduratsuaren, zirkuitu laburren, nekazaritza iraunkorraren eta ingurumenaren inguruko sentsibilizazioaren sustapenaren printzipioa.

Artículo 5. Erregimen juridikoa

1.- Juridikoki, jabari publikoko ondasunen erabilera komun berezitzat jotzen da udalaren hiri baratzeen erabilera, eta alde zuzenetik administrazio-baimena eskuratzea eskatzen du, hauetan ezarritakoaren ildotik:

- a) 33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa, eta



- b) 1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 30ekoa, Toki Erakundeen Ondasunen Araudia onartzen duena.

2.- Udalak, interes publikoko arrazoiak tarteko, baimenak baliogabetzerik izango du, kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik sortu gabe, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko 33/2003 Legearen 92.4 artikuluaaren ildotik.

3.- Udalak beretzat gordetzen du lursailen antolaketa eta banaketan aldaketak egiteko eskubidea, baita horien azalera aldatzekoa eta, behar izanez gero, lursailak ixtekoa ere. Erabiltzaileek ez dute inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango aldaketa horien ondorioz, ez esleitutako lursailen azaleraren parte bat galtzen dutelarik, ez lursailak ixten direlarik, ezta bertan landutako produktuen ordainetan ere.

4.- Baratzea erabiltzeko eta, beraz, landatzeko baimenak ez dakar berekin lursailaren gaineko beste eskubiderik.

5.- Erabiltzeko baimena norberak eta ez bestek erabiltzekoa da, eta ezarritako baldintzak betetzen diren bitartean baliatu ahal izango da.

6.- Baimena prekarioan ematen da, eta edozein unetan utzi ahal izango da bertan behera, edo aldatu, edozein arrazoi justifikatu dela medio —baldintzak betetzen ez direlako edo munta handiko arrazoiren batengatik—, titularrari inongo kalte-ordainik edo bestelakorik ordaindu beharrik gabe.

7.- Baimena bertan behera utzi zaion pertsonak baratzea erabiltzen jarraitzen badu, Gasteizko Udalak bertatik aterarazi ahal izango du, Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean aitortzen diren ahalmen eta eskumenak baliatuz.

8.- Ordenantza honetan ezarritako arauak onartzea dakar berekin udalaren hiri baratzeak esleitzeko prozeduran parte hartzeak.

Artículo 6. Tasa

Zirkunstantziak hala eskatzen badute, eta hiri baratzeen kudeaketak udalari dakarzkion kostuak aintzat harturik, jabari publikoko ondasunak okupatzeari dagokion tasa ezarri ahal izango die eskumena duen organo lokalak baratzeak erabili eta baliatzeko baimenen onuradun diren pertsona fisiko eta juridikoei.

II. titulua.- Onuradunak hautatzeko prozedura.

Artículo 7. Erabiltzeko baimenak

Udalaren hiri baratzeak erabiltzeko baimenak pertsona fisikoen alde emango dira, onartutako eskabide guztien arteko zozketaren bitartez. Nortasun juridikoa duten elkarte eta erakundeei ematen zaizkien baimenak elkarren arteko lehia baliatuz emango dira, aurkeztutako proiektuak balioetsi ondoren.

Artículo 8. Onuradun izateko betekizunak

Baratzeak erabiltzeko baimena eskuratzekotan, baldintza hauek bete beharko dira:



I.- Pertsona fisikoa bada:

1. Adinduna izatea, eta Gasteizko auzotarra, hots, Biztanleen Udal Erroldan izena emanda egotea.
2. Udalak antolatutako baratzezaintza ekologikoari buruzko arauzko ikastaroa egin izana, gutxienez % 90eko asistentziarekin, erabiltzeko baimena eman aurreko bost urteetan.
3. Lursailak erabiltzeko baimenak esleitzeko antolatzen den zozketan izena ematea.
4. Lursaila baliatzeak berekin dakartzan zereginak egiteko gaituta egotea, fisikoki.
5. Elkarbizitza-unitate bakoitzeko gehienez ere eskabide bat aurkeztea, halakotzat jotzen delarik etxe berean bizi diren pertsonen multzoa, edozein izanik ere horien arteko ahaidetasun-harremana.
6. Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea.

II.- Nortasun juridikoa duten erakunde eta elkarten kasuan:

1. Herritar Erakundeen Udal Erregistroan izena emanda egotea.
2. Erakundeei lursailak erabiltzeko baimenak esleitzeko prestatzen den deialdian parte hartzea, ordezkari adindun bat izendatuz horretarako.
3. Proiektu bat aurkeztea, non baratzeetan egiteko diren jarduerak garatzen diren, eta beren jarduerak nekazaritza ekologikoarekin zerikusia dutela justifikatzea.
4. Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta edukitzea.

Artículo 9. Lursailak erabiltzeko baimena eskuratzeko debekuak.

Aurreko artikuluan adierazitako baldintza guztiak bete arren, ez zaie baratzerik erabiltzeko aukerarik emango egoera hauetakoren batean egokitzen direnei:

1.- Pertsona fisikoen kasuan:

- a) Udalaren hiri baratzeetan beste lursail baten esleipendun izatea.
- b) Udalaren hiri baratze bat erabiltzeko baimena indarrean duen pertsona bat dagoen elkarbizitza unitate batekoa izatea.
- c) Udalak udal lursail bat erabiltzeko baimena baliogabetu izana, azken bost urteetan, bertako baldintzak ez betetzeagatik.
- d) Beste nekazaritza-lursailen bat edukitzea, edo nekazaritzarako egoki den landa-lurreko beste lursailen baten jabe izatea.
- e) Bi urteko aurreko aldian udalaren lursail bat erabiltzeko baimena eduki izana, salbu eta deialdia egiten denean nahikoa eskabiderik jasotzen ez bada.

2.- Nortasun juridikoa duten erakunde eta elkarten kasuan:

- a) Udalaren hiri baratzeetan beste lursail baten esleipendun izatea, salbu eta udal teknikariek txostena egin ondoren eta behar bezala justifikaturik udal organo eskudunek egiten dituzten salbuespenak.



- b) Udalak udal lursail bat erabiltzeko baimena baliogabetu izana, azken bost urteetan, bertako baldintzak ez betetzeagatik.
- c) Beste nekazaritza-lursailen bat edukitzea, edo nekazaritzarako egoki den landa-lurreko beste lursailen baten jabe izatea.

Artículo 10. Baimena eskuratzeko prozedura.

1.- Hainbat hedabidetan eta udalaren web-orriaren iragarriko den deialdi publikoaren bidez ekingo zaio prozedurari. Deialdian bertan zehaztuko da eskabideak aurkezteko epea, zein ezingo baita izan 15 egun naturaletik beherakoa.

2.- Hiri baratzeak esleitzea nahi duten pertsona edo erakundeek Udalaren Erregistro Nagusian edo herritarrei laguntzeko bulegoetan aurkeztu beharko dituzte eskabideak, horretarako emango zaien eredu normalizatua baliatuz.

Eredu normalizatuan bertan nahiz deialdiaren oinarrietan eskatzen diren agiriez gain honako hauek erantsi beharko zaizkio eskabideari:

- a) Nortasun-agiriaren fotokopia edo legez ordeztan duen agiriaren fotokopia.
- b) Erantzukizunpeko aitortpena: ordenantza honen 9. artikuluan —1.b) eta 1.d) ataletan pertsona fisikoei dagokienez eta 2.c) atalean erakundeek dagokienez— zehazten diren bantzak baztertzeko arrazoirik ez dela egokitzen beren kasuan.

Nortasun juridikoa duten elkarte eta erakundeek zuzendutako deialdiak direnean, bertan zehaztuko dira eskatzen diren berariazko agiriak.

3.- Eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda argitaratuko da udalaren web-orrian eta iragarki-taulan, baztertzeko arrazoiak adierazten direlarik.

Ondoren, 15 eguneko epea zabalduko da, erreklamazioak aurkezteko eta agirietako akatsak zuzentzeko.

4.- Erreklamazioak ebatzi ondoren, onartutako eskabideen behin betiko zerrenda argitaratuko da. Pertsona fisikoei zuzendutako deialdiaren kasuan, zozketarako zenbakia agertuko da zerrendan, eta hura zein egun eta ordutan izango den adieraziko.

5.- Zozketaren emaitza akta batean jasoko da, eta udalaren iragarki taulan eta web-orrian argitara emango, kontsultatzerik izan dadin. Zozketa egin ondoren, esleipendunei jakinaraziko zaie udalaren hiri baratzeak erabiltzeko baimenaren inguruko ebazpena.

Elkarteentzako deialdien kasuan, horien oinarrietan ezartzen diren irizpideak aintzat harturik balioetsiko dira eskabideak. Balioespen horren emaitza iragarki taulan eta udalaren web orrian argitaratuko da, eta erabiltzeko baimenen esleipendun egokitzen direnei jakinaraziko zaie.

6.- Administrazio Publikoen Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legean adierazten direnak jaso beharko dira baimentze erabakian.

7.- Udalaren hiri baratze bat erabiltzeko baimena ematen deneko administrazioaren ebazpenak agortu egingo du administrazio-bidea. Ebazpen horren kontra aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, erabakia hartu duen organo berari zuzendua, edo, nahi izanez gero, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa.



Artículo 11. Baimenen iraunaldia.

Gehienez ere 4 urteko indarraldia izango dute baimenek, eta ezingo da epe hori luzatu.

Artículo 12. Baimenen iraungipena.

1. Udalak baratzeak erabiltzeko ematen dituen baimenak iraungi egingo dira honako kasu hauetan:

Epea iraungitzen delarik.

Erabiltzailea hiltzen edo ezintasun egoeran egokitzen delarik, edo nortasun juridikoa agortzen.

Zein ondasunen gainean eman diren, horien galera fisikoa edo juridikoa gertatzen delarik.

Ondasunari atxikidura kentzen zaiolarik.

Bi aldeek hala adosten dutelarik.

Aldeetako batek bere kasa ezeztatzen duelarik.

Ebazpen judiziala dela medio.

Emakidadunak uko egiten diolarik.

Udalaren hiri baratzeen lursailetan edozein hornidura publiko jartzea dakarren hirigintza-garapenerako edo azpiegiturak gauzatzeko edozein plan onesten duelarik udalak nahiz beste edozein administrazio publikok.

2.- Aurreko atalean adierazitako arrazoietakoa edozein dela medio baimenak iraungiz gero, administrazio-prozedura izapidetu beharko da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen ildotik.

III. titulua.- Erabilera eta gozamen baldintzak.

Artículo 13. Baimenen izaera pertsonala.

Baratzeak erabiltzeko baimenak modu pertsonalean emango dira, eta, horrenbestez, debekatuta egongo da besteri mailegatzea, uztea, alokatzea edo eskualdatzea. Nolanahi ere, esleipenduna izango da utzitako lursailaren erabileraren eta bertan aplikatzen diren produktuen erantzule bakarra.

Artículo 14. Erabilera arauak.

1.- Udalaren hiri baratzeak erabiltzeko baimenen esleipendunak behartuta egongo dira erabilera arau hauek betetzera:



- a) Baratzeko landare-espezieak landatzeko baliatzea baratzeak, eta, baldin eta administrazio-baimenean zehazten badira, horiek eta ez beste. Baratzeak horretarako izaki, esleipendunak barazkiak, loreak eta landare aromatikoak baino ezingo ditu landatu.
- b) Nekazaritza ekologikoaren irizpideak baliatzea, eta, halaber, ura aurrezteari lehentasuna ematen dioten urreztatze sistemak, eta norberaren haziak edo jatorri ekologikoa duten landare edo haziak. Ongarri organikoak bakarrik erabili ahal izango dira. Baratzean bestelako produkturik erabiltzekotan (ongarriak, plagizidak...), Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoaren Kontseiluak (ENEK) baimendutako produktu fitosanitarioak izan beharko dute, eta alde zuzenetik udalak baimendu beharko ditu.
- c) Erabiltzeko uzten diren lursaila, instalazioak, lanabesak eta tresnak behar adinako arretarekin zaintzea. Bereziki, erabiltzaileek harri, egur, landare, hondakin eda lurrik gabe, garbi eduki beharko dituzte beren lursailen mugakide diren korridoreak, baita, halakorik bada, mugakide dituzten landare-ontziak zaindu ere (urreztatu eta jorratu). Era berean, baratzeen mugetako heskaien airetiko parteak kanpoko aldera luza daitezela ekidin beharko dute, eremu komunak, ondoko baratzeak edo bideak ez ditzaten har.

Baratzeen erabiltzaileek nekazaritzarako behar dituzten lanabesak maileguan jasotzen badituzte, behar bezala erabili eta zaindu beharko dituzte, ez hondatzeko. Oker erabiltzearen ondorioz kaltetu edo hondatzen diren ondasun eta tresnak konpondu edo berritu egin beharko dituzte, baita galtzen dituztenak ere.

Lanabesak gordetzeko lekuak garbi eta egoera onean eduki beharko dituzte.

- d) Jardueraren arduradunek ematen dizkieten jarraibideak errespetatzea, une oro. Jardueraren arduradunek ematen dizkieten arauak errespetatzea, urasketako uraren, ongarrien, lanabesen eta, oro har, uzten zaien beste edozein elementuren erabilerari dagokionez. Armairutxo irekitzea galdatzen zaielarik, ikuskatzeko, hala egitea.
- e) Gizalegezko jokabidea izatea une oro, eta baratzeen gainerako erabiltzaileekiko begirunea erakustea; haiei enbarazurik ez egitea, eta kalte edo zauririk eragin liezaiekeen tresnarik ez erabiltzea.
- f) Jatorriz uzten zaien lursailaren egitura eta azalerari bere horretan eustea, inongo obra edo itxiturarik egin gabe, salbu eta eskumena duen udal organoak alde zuzenetik horretarako baimena ematen dielarik.
- g) Jardueraren arduradun diren teknikariei jakinaraztea baratzeei, bertako instalazioei nahiz utzitako materialari eragiten dien gertakari, lapurreta, arazo, kalte edo hondamen oro, beste erabiltzailearen batek nahiz kanpoko norbaitek eraginak izan.
- h) Lursaila garbi eta hutsik uztea hura erabiltzeko baimena bukatzean. Jaso zituztenekoaren antzeko egoeran itzuli beharko dituzte baratzeak esleipendunek. Aurreikusitako erabileraren ondorioz normala dena baino hondamen handiagorik gertatuz gero instalazioetan, erabiltzaileek jatorrizko egoerara bihurtu beharko dituzte gauzak, edo berritu, eta, erabiltzailearen batek betebeharrak hori betetzen ez badu, udalak egin ahal izango du zuzenean, eta, gerora, administrazioak halakoetarako duen ahalmena baliatu, hari ordainarazteko.
- i) Erabiltzen bukatzean lanabesak itzultzea. Maileguan jasotako lanabesak eta gainerako tresnak garbi eta egoera onean itzuli beharko dira, eta zer edo zer hondatu bada, jakinarazi.
- j) Baratzeetan materialak edo lanabesak ez utzi edo pilatzea, salbu eta lurra lantzeko ezinbesteko direnak.



- k) Ureztapena baratzeen instalazioetan erabiltzaileen eskura jartzen diren bitartekoak baliatuz egitea. Ezingo da erabili bertan dauden edo eskura jartzen direnez bestelako elementurik horretarako, salbu eta baratzeen arduradunek baimentzen dutelarik. Bereziki, debekatuta egongo da ihintzagailuak edo aldameneko baratzeak inbadi ditzaketen bestelako bitartekoak erabiliz ureztatzea. Ureztatzeko ura alferrik galtzea ekidin beharko da, eta dagoen ura neurritz kanpo kontsumitzea dakarten ureztatze metodoak erabiltzea. Era berean, debekatuta egongo da ura beste edonondik ekartzea, ezpada horretarako egokitutako lekutik, salbu eta erabiltzaileak etxetik edo iturri publikoetatik ontzietan ekartzen duena. Aisialdiko baratzeen erabiltzaileek ura erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasa edo kanon bat ezarri ahal izango du udalak, hornidura-kostuak aintzat harturik.
- l) Baratzeetan animaliarik edukiz gero, Animaliak Eduki eta Babesteari buruzko Udal Ordenantzan —edo hori ordeztzen duen araudian— aurreikusitako baldintzak betetzea.
- m) Baratzeen barru aldera trakzio mekanikoko ibilgailuekin ez sartzea, ezpada laborantza laneratarako beharrezko direnekin.
- n) Baratzeak landu edo erabiltzeari ez uztea. Esleipenduna behartuta egongo da baratzea lantzearen inguruko jarduerak oro garaiz egitera, eta hura erabiltzeko eskubidea galdu egingo du baldin eta arrazoi justifikaturik gabe hura bertan behar utzi duela atzematen bada. Baratze bat bertan behar utzita dagoela joko da bertan landatuak zaindu gabe daudela nabarmena gertatzen delarik, baita azaleraren % 50 basa landareek hartua badago ere, edo bertako izurri eta bizkarroien ugaritasunak aldameneko lursailtako landareei kalte egiteko arriskua badago. Baratze bat bertan behera utzia badago, erabiltzaileak —ohartarazten zaiolarik— zazpi egun naturaleko epea izango du hura egokitzeke. Hala egin ezean, soildu egingo da baratzea, eta erabiltzaileak ez du inongo kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik izango. Aldi batez baratzea lantzeko ezintasuna egokitzen zaiolarik, erabiltzaileak jardueraren arduradunei jakinarazi beharko die, lehenbailehen jakinarazi ere.
- o) Lursailaren erabilerari dagozkion zereginak norberak egitea, ezinbesteko kasuetan salbu —halakoetan, egiaztatu egin beharko da, udalaren aurrean—. Nolanahi ere, lizentziaren titularrak senitartekoen laguntza jaso ahal izango du baratzea landu eta zaintzeko orduan; baina galarazita egongo da, beti ere, beste inor subrogatzea esleipendunaren lekuan.
- Salbuespen gisa, eta baratzeen arduradunei jakinarazi ondoren, erabiltzaileek baimena eman ahal izango dute hirugarren pertsona bat bertan sartzeko: baimena urtean 60 egunerako eman ahal izango da, edo gehiagorako, baldin eta egiaztatutako arrazoi medikuak badaude. Udalak akreditazioa emango dio baimenduari, eta agerian eramango du hark.
- p) Beste erakunde batzuekiko lankidetzat proiektuetan parte hartzea, udalaren baratze ekologikoen kudeaketaren arduradunak programatzen dituelarik.
- q) Baratzeetan sortzen den materia organikoa konpostatzeko bide emango da. Horretarako, zuzenean baratze bakoitzean konpostatzeko obligazioa ezartzen da, edo hainbat baratzeri zerbitzu ematen dieten konpostatzeko lekuetan.

2.- Baimenaren titularrak erabilera arau horietako edozein urratzen badu, udalak bertan behera utzi ahal izango du hura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen ildotik administrazio-prozedura izapidetu ondoren.

Artículo 15. Debekuak



1.- Udalaren hiri baratzeak familiarentzako baratze ekologiko gisa baino ezingo dira baliatu, edo pedagogi, terapia, ingurumen, gizarte edo zientzia eta teknika xedeekin lotura duten nortasun juridikoko elkarte eta erakundeen jarduera-programetarako, eta norberaren edo senitartekoen kontsumorako espezieak baino ezingo dira landatu, ezpada lorategiko landareak. Horrenbestez, ezingo dira beste edozertarako baliatu. Berariaz debekatuta egongo da:

- a) Baratzeako produktuak merkaturatzea —baratzeen erabiltzaileen arteko trukea baino ez da egongo baimenduta—.
- b) Lurra hondatzen duten landareak eta landare psikotropikoak nahiz legeek debekatuak landatzea, eta hazi transgenikoak erabiltzea.
- c) Nekazaritza ekologikoaren alorrean indarrean dagoen legediak baimentzen ez dituen herbizidak, plagizidak eta ongarrak kimikoak erabiltzea.
- d) Fauna bereizketarik gabe harrapatzeko tranpa edo metodoak erabiltzea, baita horretarako jakiak jartzea ere, gai pozoitsuak eduki ala ez.
- e) Edonolako bereizgailu edo mugaketarik jartzea —kanaberak, egurrak, hesiak, plastikoak edo beste—; ohol finkorik edo bankurik jartzea; txorimaloak, barbakoak, txabolak, estalpeak, oilategiak nahiz edozein animalia hazi edo edukitzeko kaiolak edo edonolako eraikuntzak egin edo instalatzea, dela material artifizialekin, dela naturalekin —parrak edo beste—; elementu berriak eraiki edo instalatzea edo lehendik zeudenak aldatzea, salbu eta udalak horretarako baimena berariaz ematen badu. Baimen hori idatziz eskatu beharko da, eta bide bera baliatuz erantzungo zaio eskatzaileari.
- f) Zuhaitzak eta zuhaixkak landatzea, fruitu espeziekin zerikusia duten proiektuetarako lursailetan izan ezik.
- g) Baratzea materialak eta altzariak —mahaiak, aulkiak eta abar— eduki edo gordetzeko erabiltzea.
- h) Ehiza egitea, zuhaitzak ebakitzea nahiz baratzean edo inguruan izan litekeen fauna eta florari kalte egin diezaiokeen beste edozein jarduera.
- i) Baratzeako zereginekin zerikusirik ez duen materiala pilatu edo botatzea bertan, eta hartara lekua itxuragabetzea.
- j) Baratzean sortutako hondakinak erretzea edo sua egitea.
- k) Baratzean sortutako hondakinak nahiz soiltze eta garbitze lanetako hondakinak beste baratze edo orubeetan uztea, eta sortutako hondakinak behar bezala ez bereiztea, birziklatzeko.
- l) Ura alferrik galdu edo xahutzea. Galarazita dago hodi malguak erabiltzea, lursaila urreztatzeko nahiz ordezkotzeko urreztatze sistemak hornitzeko.
- m) Ibilgailu motordunekin zirkulatzea esparruaren barrutik, lanabes motordunak erabiltzeko aukera gorabehera.
- n) Baratzeen esparruan ibilgailu pribatuak sartzeko edo aparkatzea, bizikletak salbu.
- o) Baratzea kudeatzearen ardura duten langileek finkatutako edo baimendutakoez bestelako lanabesik erabiltzea.
- p) Esleitutako lursailetik kanpo besterik landu edo okupatzea.
- q) Baratzeako lanetan jardun bitartean lanabesak lursailaren mugetatik kanpo uztea.
- r) Norberaren objektu eta arropak tresna eta lanabesak uzteko lekuetan gordetzea.



- s) Aurrekoetz gaineko beste edozein jarduera, baldin eta eragozpenak edo usain txarrak sortzen baditu, gainerako erabiltzaileen erabilera mugatzen badu edo inguruneari eragiten badio.

2.- Baimenaren titularrak debeku horietako edozein hautsiz gero, udalak bertan behera utzi ahal izango du hura, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen eta aplikatu beharreko gainerako araudien ildotik administrazio-prozedura izapidetu ondoren.

Artículo 16. Ordutegiak.

Ordutegi jakin bat izango da esparrua irekitzeko —baratzeen erabiltzaileak horren jakinaren gainean jarriko dira—.

- 1.- Horretarako ezarritako ordutegiaren barruan gauzatu beharko da baimenen onuradunei dagokien erabilera.
- 2.- Nolanahi ere, baimenak edo eskumena duen organoak gerora emandako edozein egintzak finkatutako ordutegia aldatzerik izango du, dena delako arrazoiak direla medio.

Artículo 17. Hondakinen kudeaketa.

1.- Baratzeen erabiltzaileak izango dira beren lursailetan sortzen diren hondakinak egoki tratatzearen erantzule.

Baratzeetan sortzen diren hondakinak etxeko hondakintzat joko dira, eta Gasteizko Garbiketari eta Hondakinen Bilketa eta Garraioari buruzko Ordenantzak edo hori ordeztzen duen arauak arautuko du horien kudeaketa.

2.- Konpostatzea: Jarduera horren baitan sortzen diren hondakin konpostagarri, organiko, biodegradagarriak, baratzetik sortuak izan ala ez, konpostatze prozesura bildu beharko dira, lursailean bertan.

Baratzeko gainerako hondakinak, hala nola plastikoak, ontziak (zurezkoak eta plastikozkoak), hodi malguak, makilak, sokak eta beste, baimenaren titularrak kudeatu beharko ditu, aipatutako ordenantzan ezarritako irizpideei jarraiki.

Artículo 18. Erabiltzaile izaera galtzea.

1.- Udalaren hiri baratzeen erabiltzaileek izaera hori galtzerik izango dute —eta, horrenbestez, baliatzen ari ziren erabilera komun bereziarekin jarraitzeko eskubidea— baldin eta erabilera-arauak betetzen ez badituzte edo ordenantza honetan jasotzen diren debekuak errespetatzen ez badituzte.

2.- Horrez gain, egintza edo zirkunstantzia hauek ere ekarriko dute baratzea erabiltzeko eskubidea galtzea:

- a) Baimenak iraungitzeko arrazoietakako edozeinek —ordenantza honetan bertan jasoak—.
- b) Gasteizko udalerriko auzotasuna galtzea.
- c) Udalari ordaindu beharreko zergak ordainduta ez edukitzea.



- d) Lursaila erabili edo lantzeari uztea, hiru hilabetetik gorako aldi batez, edo baimena emateko orduan balioetsiko programa ez betetzea.
- e) Lursaila esleitzea ekarri zuten zirkunstantziak gerora desagertzea.
- f) Ordenantza honetan zehazten diren bateraezintasun edo debekuetako edozein egokitzea.

3.- Erabiltzaile izaera galtzeak ez du ekarriko berekin, inolaz ere, haren aldeko kalte-ordainik onartzerik.

4.- Udala bada lursaila erabili edo baliatzeko eskubidea galdutzat jotzen duena, behar den administrazio-prozedura izapidetu beharko du aldez aurretik, eta entzunaldia eskaini interesdunari.

IV. titulua.- Erantzukizun-erregimena.

Artículo 19. Erantzukizun-erregimena

1.- Erabiltzaileak izango dira lursailak erabili eta baliatu bitartean beren buruari edo besteri eragiten dizkioten kalteen erantzule, halakorik izanez gero. Nolanahi ere, udala ez da izango erabiltzaileek elkarri edo besteri eragiten dizkieten kalteen erantzule, halakorik izanez gero.

Lursailak erabiltzeko baimenak emateko deialdiaren baitan eskabidea aurkezteak berekin ekarriko du eskatzaileek jarduerak dakartzan arriskuak beren gain hartzea, eta udalak ez du erantzukizunik izango kalte materialik gertatuz gero, edo erabiltzaileek nahiz horien laguntzaileek —erorketa, istripu, kolpe edo antzekoen ondorioz— kalte pertsonalik jasanez gero.

2.- Baimenaren titularrak bere gain eta galorde erabiliko du lursaila. Udala ez da izango fenomeno meteorologikoak direla eta —kazkabarra, uholdeak...— baratzeetan sortzen diren kalteen erantzule.

3.- Udalak ez du erantzukizunik bere gain hartuko baratzeetan gertatzen diren kalte, lapurreta eta ekintza bandalikoak direla eta. Eta ez du izango horiek zaintzeko ardurarik ere.

4.- Udalak ofizioz ekin ahal izango dio baratzeen esleipendunek erru edo arduragabekeria larrien ondorioz izan litzaketen erantzukizunak argitzeko prozedurari.

Artículo 20. Kalteak eta galerak ordaintzea.

1.- Aurreko artikuluan ezarritakoaren ildotik erantzule egokitzen diren erabiltzaileak behartuta egongo dira sortutako kalte edo zauriek eragin dieten pertsonen kalte-ordainak ordaintzera.

2.- Erabiltzeko uzten diren instalazioetako kalteengatik sortzen bada erantzukizuna, kalte-ordaina erreklamatzeko eskubidea udalak baliatuko du, aplikatzekoak diren administrazio zuzenbideko arauak aintzat harturik.

3.- Kalte edo zauriak partikularrei eragiten bazaizkie, hau da, gainerako erabiltzaileei, haiek galdatuko dute erantzukizuna, legedia zibilean ezarritakoaren ildotik.



V. titulua.- Udalaren hiri baratzeen antolaketa.

Artículo 21. Baratzeen kudeaketari atxikitako organoak eta langileak.

1.- Aurreko tituluari adierazitakoaren arabera baratzeen erabiltzaileei dagozkien erantzukizunak gorabehera, haien kudeaketaren jarraipena egingo du udalak, erabiltzaileek egiten dituzten lanak ordenantza honetan eta aplikatu beharreko gainerako araudietan ezarritakoarekin bat datozela egiaztatze aldera.

2.- Teknikari gaituak izendatuko ditu eskumena duen organo lokalak jarraipen-zereginak egin ditzaten, baratzeei dagokienez. Langile horiek kontrol ahalmenak izango dituzte, informazioa jaso eta ikuskatzerik izango dute, eta, gainera, jarraibide zehatzak eman ahal izango dizkiete erabiltzaileei, baratzeen funtzionamendu egokiaren inguruan, eta, beraz, horiek erabiltzeko baimenak emanez lortu nahi diren helburuak lortzeari dagozkionetan.

Artículo 22. Jarraipen batzorde teknikoa.

1.- Batzorde tekniko bat sortu ahal izango du udalak, udalaren hiri baratzeen funtzionamenduaren jarraipena egiteko, zeinen jarduna 30/1992 Legean organo kolegiatuentzat aurreikusitako erregimenak arautuko baitu, eta kide hauek izango baititu:

a) Ingurumeneko zinegotzi arduraduna, zeinek lehendakari gisa jardungo baitu, edo hark ordezkari izendatzen duena.

b) Udal teknikari bat.

c) Udalaren hiri baratzeen erabiltzaileen ordezkari bat.

d) Lehendakariak hala baimentzen duelarik, teknikari adituak ere bertaratu ahal izango dira inoiz —ahotsa izango dute, baina ezingo dute botorik eman—, beren ezagutza eta esperientzia dela eta.

2.- Hiru hilean behin bilduko da batzordea, ohiko bilkuran, eta aparteko bilkuran, berriz, noiznahi, dela lehendakariaren ekimenez, dela kideen heren batek hala eskatuta.

3.- Hauek izango dira batzorde teknikoaren zereginak:

a) Programaren funtzionamenduaren jarraipena egitea.

b) Erabiltzaileen iradokizunak jasotzea eta hobetzeko proposamenak egitea.

c) Baratzeen erabileraren inguruko liskar eta gorabeheren berri ematea.

d) Praktika onei buruzko agiriak eta gidak onestea, baratzeak erabili eta lantzeari dagozkionetan.

e) Lursailen kudeaketa hobetzeko planak onestea, baita ekologiaren, ingurumenaren eta heziketaren ikuspegitik haien errendimendua hobetzea helburu duten gomendioak ere.

Artículo 23. Teknikariak.

1.- Behar diren teknikariak atxiki beharko dizkio udalak baratzeen jarraipenari, zeinek ezagutza egokiak izan beharko baitituzte udalaren hiri baratzeen programa behar bezala garatzen dela bermatze aldera.



2.- Zeregin hauek izango dituzte teknikari horiek:

- a) Esparruaren kudeaketaren eta banako espazioen nahi espazio komuneren mantenimenduaren jarraipena.
- b) Erabiltzaileei jarraibide zehatzak ematea, baratzeen kudeaketa, erabilera eta mantenimenduaren inguruan.
- c) Horiek behar bezala erabiltzen diren zaintzea.
- d) Baratzeetan nekazaritza ekologikoa sustatzea, behar izanez gero prestakuntza eta zabalkunde jarduerak antolatuz, erabiltzaileentzat.
- e) Baratzeetan uraren erabilera eraginkorra eta iraunkorra bultzatu eta kontrolatzea, ureztapen sistema berriak sustatuz eta, behar izanez gero, mugak ezarriz, baratzeetara ura hornitzeari dagokionez.
- f) Erabiltzaileei aholku ematea, lurra, azaleko urak, akuiferoak eta atmosfera kutsatzeko arriskurik sortzen ez duten ongarri eta produktu fitosanitarioak —edo flora, fauna eta pertsonen kalterik ekarriko ez dietenak— erabiltzeari dagozkionetan.
- g) Erabiltzaileen ohiko beharrei erantzutea, hala eskatzen dietelarik, eta sortzen diren izaera orokorreko gaiak kudeatzea.
- h) Baratzeetako konpostatze programa kudeatu eta jarraipena egitea.
- i) Baratzeen egoera ikuskatzea, eta lursailak esleitzearekin batera uzten diren materialen inbentarioa egitea, eta, behar izanez gero, horiek berriro daitezela eskatzea. Baita haziak, ongarriak eta plagizidak erostearen inguruko orientabideak ematea ere.
- j) Baratzeen erabilera eta kudeaketaren osagarri diren jarduerak programatzea, eta urteko oroitidazkia egitea.

Artículo 24. Erabiltzaileekiko komunikazioak

1.- Baratzeen ohiko funtzionamenduaren inguruko kontuei buruzko jakinarazpenak — materialen banaketa, ordutegi aldaketak, tutoretza ordutegia eta antzekoak— udalaren hiri baratzeetako iragarki tauletan eta ohiko lekuetan argitaratuz gauzatuko dira.

2.- Interesdunei jakinarazpen ofizialak helarazteko, Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legean xedatutakoaren arabera jokatu da.

VI. titulua.- Zigortzeko erregimena

Artículo 25. Ikuskapena eta kontrola.

1.- Udalak izendatzen dituen teknikariek egingo dituzte ikuskapen eta kontrol lanak; hain zuzen ere, ordenantza honetan arautzen diren gaien inguruko zaintza, ikuskapen eta kontrol jarduerak burutu ahal izango dituzte.

2.- Teknikariek gain, udaltzainek ere egin ahal izango dituzte ikuskatze lanak, eta baratzeetara agertu, baldin eta eztabaida eta liskarrak sortzen badira haien kudeaketan, dela erabiltzaileen artean, dela beste inorekin.



Baratzeen erabiltzaileak behartuta egongo dira pertsona horiei bertara sartzen utzira, baita eskatzen dizkieten argibideak ematera ere, baratzeen kudeaketari, erabilerari eta ustiapenari jarraipena egiterik izan dezaten hartara.

Artículo 26. Legezketasuna babestea

Neurri hauek hartu ahal izango dira ordenantzan xedatutakoaren aurkako ekintzak edo ez egiteak egokituz gero, bakoitzerako aurreikusita dagoen prozedurari jarraiki:

- a.- Hondatutakoa berritu edo lehengo egoerara bihurtzeko obligazioa, baita kalte-galerak ordaintzekoa ere.
- b.- Zuhurtasuneko neurriak hartzea, aplikatzekoa den araudian ezarritakoari jarraiki.
- c.- Administrazio-aginduen betearazpen subsidiarioa.
- d.- Zigorak jartzea.

Artículo 27. Arau-haustek eta zigorrak

1.- Ordenantza honetan halakotzat tipifikatutako ekintzak eta ez egiteak administrazio arau-haustetzat joko dira, Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak emendatutako apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluaren ildotik.

2.- Ordenantza honetan aurreikusten den zigortzeko ahalmenaz baliatzeotan, lehenik eta behin prozedura zigortzailea abiarazi eta izapidetu beharko da, titulu honetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoaren ildotik.

3.- Egileak baino ez dira izango arau-hausteen erantzule, halakotzat joko baitira Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 9. artikuluan zehazten diren ezaugarriak betetzen dituztenak.

Artículo 28. Arau-haustek

Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen XI. tituluaren ildotik –Tokiko Gobernua Eraberritzeko Neurriak biltzen dituen abenduaren 16ko 57/2003 Legeak aldatua–, honako hauek izango dira arau-hauste tipifikatuak:

1.- Hauek izango dira arau-hauste arinak:

- Baratzeen erabiltzaileei nahiz bertan zereginen bat burutzen duten teknikari edo langileei tratu ezegokia edo txarra ematea.
- Ausarkeria edo axolagabekeria dela medio kalteak sortzea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan, 100 eurotik beherako baliokoak.
- Jarduera edo zerbitzuen arduradunek beren zereginen esparruan emandako aginduei jaramonik ez egitea.
- Lursaila onik zaintzeko oinarritzko zereginak ez egitea.
- Ordenantza honetan finkatutako betebeharretakoren bat ez betetzea, arau-hauste larri edo oso larritzat jotzerik ez badago.
- Ez konpostatzea, ordenantzan aurreikusten den moduetakoren batean.

2.- Hauek izango dira arau-hauste larriak:

- Baratzeetako elkarbizitza eta funtzionamendua nahastea, besteri eragozpenak eraginez.



- Baratzeen erabiltzaileei eta bertako langileei tratu txarra ematea, hitzez nahiz egitez.
- Dela nahita, dela ausarkeria edo axolagabekeria dela medio, kalteak sortzea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan, 100 eurotik 300era bitarteko baliokoak.
- Lursaillean obrak edo aldaketak egitea, aldez aurretik udalaren baimena izan gabe.
- Espezie debekatuak edo baratzeak hondatzea dakartenak landatzea.
- Baratzeetan barbakook, estalpeak edo baimenduta ez dauden bestelako elementuak instalatzea.
- Lursaillean sua egitea, edozertarako delarik ere.
- 14. artikuluan xedatutakoa urratzea, baldin eta oso larritzat jotzerik ez badago.
- Baratzea erabiltzeko baimena eskuratzeko ezarritako betebeharrak betetzeari eragin diezaioketen aldaketen berri ez ematea.
- Hondakin organikoak plastiko eta metalen edukiontzietan uztea.

3.- Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

- Lurra kutsatzea.
- Udal ondasunak lapurtzea.
- Dela nahita, dela ausarkeria edo axolagabekeria dela medio, kalteak sortzea bertako instalazio, material edo ekipamenduetan, 301 eurotik gorako baliokoak.
- Debekatuta dauden landare toxiko edo psikotropikoak ekoiztea.
- Baratzeetan landutako produktuak merkaturatzea.
- Horretarako eskubidea duen beste inori baratzeak erabiltzea galaraztea.
- Baratzeen funtzionamendu normala galarazi edo eragozte.
- Baratzeak erabiltzen ari diren pertsoneri nahiz bertako langileei fisikoki eraso egitea.
- Erabiltzeko baimena lortzeko eman beharreko datuak —nortasuna, adina edo beste— faltsutzea, edo beste inoren nortasuna bereganatzea.
- Baratzea erabiltzeko baimena bertan behera uzten delarik, udalak emandako epean ez hustea lursaila.
- Baimena besteri eskualdatu edo ematea.
- Lurra kutsatzea, ongarri kimikoak edo plagizidak erabiliz.

Artículo 29. Zigorrak

1.- Isun hauekin zigortuko dira aurreko artikuluan tipifikatutako arau-haustek:

Arau-hauste oso larriak: 1.500,01 eurotik 3.000era bitarteko isuna.

Arau-hauste larriak: 750,01 eurotik 1.500era bitarteko isuna.

Arau-hauste arinak: 750 euro arteko isuna.

2.- Arau-haustek mailakatu eta isunen zenbatekoa zehazteko, irizpide hauek hartuko dira aintzat:

- a) Zer-nolako eta zenbateko kalteak eragin diren.
- b) Arau-hausleak lortutako onura.
- c) Burututako jarduerak sortutako arriskua.
- d) Nahita edo behin baino gehiagotan egin izana.
- e) Arau-haustearen aringarri edo larrigarri izan litekeen beste edozein zirkunstantzia.

Artículo 30. Zigortzeko eskumena

Gobernu Batzarra izango da organo eskuduna ordenantza honetan finkatutako zigorrak ezartzeko, eskumen hori besteri eskuordetzeko ahalmena gorabehera.



Artículo 31. Zigortze prozedura.

Titulu honetan zehaztutako arau-hausteei dagokienez, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako zigortzeko ahalmenaren inguruko printzipioetara egokituko da zigortzeko prozedura, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea aplikatuko da.

Artículo 32. Zuhurtziazko neurriak.

Zigortzeko ahalmena baliatzeko eskumena duen organoak zuhurtasunezko neurriak hartu ahal izango ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legearen ildotik.

Artículo 33. Lehenngoan uzteko eta konpontzeko obligazioa.

Zigorra ezartzeaz gain, arau-hausleari berak eraldatutako egoera lehenngoan uzteko eska dakioke, bai eta behar izanez gero, sortutako kalte-galerak ordaintzeko ere.

Udal jabetzako ondareei kalterik eginez gero, udal zerbitzu teknikoek konponketaren zenbatekoa zehaztuko dute, eta arau-hausleari edo haren ordezkari erantzun behar duenari jakinaraziko dio, ezartzen den epean ordain dezan.

Artículo 34. Bateratasuna auzibide penalarekin

Prozeduraren edozein unetan instruktoreak uste badu bideratzen ari den egintza lege-hauste penaltzat har daitekeela, 2/1998 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa aplikatuko du.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honen xedetik kanpo geratzen da gizarte ekintza eta ongizatea helburu irabazi-asmorik gabeko erakundeei lagatzen zaizkien lursailen erregimen juridikoa.

AZKEN XEDAPENA

ALHAOn argitaratu eta Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aurreikusitako epea igarotzen delarik jarriko da indarrean ordenantza hau.